

ASTIALDI SAREA | Euskal Herriko gizarte esku hartzerako eta astialdi hezitzaileerako **erakundeen sarea** | **Red de organizaciones** para la intervención social y la educación en el tiempo libre de Euskal Herria.

1 | BOST proposamen 2020ko autonomia-erkidegoetako hauteskundeetarako

2 | ASTIALDI SAREA. Nor gara.

3 | Hezkuntza astialdian: pertsonen garapenari, komunitateei eta Euskadiri egindako ekarpenak.

1 | PROPOSAMENAK.

Astialdian heztea, ASTIALDI SAREAK ordezkatzeko dituen gizarte-ekimeneko erakundeek, sarea osatzen duten erakundeen aniztasuna eta pluraltasuna aintzat izanda, **alderdi politikoei bost proposamen helarazi nahi dizkiegu, aztertzeko, hausnartzeko eta hauteskunde-programetan aintzat hartzeko.**

Aurkezten ditugun proposamen hauek astialdian hezteko planak, proiektuak eta ekimenak sendotu eta zabaldu nahi dituzte, gizarte-eraldaketarako: pertsonak, auzoak, heziketa-eragileak garatzeko ekarpenak, gizarte- eta hezkuntza politiken eta Euskadiko hirugarren gizarte-sektorearen zati aktiboa.

1 | PROPOSAMENAK.

1. Gizarte-politiketan astialdian hezteko euskal estrategia antolatzea.
2. Astialdian heziketaren ekarpenak, aukerak eta eragileak zabaltzea Eusko Jaurlaritzaren askotariko planetan eta estrategiatan.
3. Astialdian hezteko udal estrategien, programen eta proiektuen ezarpena eragitea.
4. Udalerrietan eta/edo auzoetan heziketa-komunitateen garapena sustatzea.
5. Gizarte-ekimeneko proiektuei babesa sendotzea: boluntarioen lana, ezagutza eta berrikuntza.

1 | PROPOSAMENAK.

BAT. Gizarte-politikan astialdian hezteko euskal estrategia antolatzea.

- > Astialdiko heziketaren euskal politiken oinarriak eta agenda kokatzeko, aitortzeko, aztertzeko, kokatzeko, zehazteko eta eraikitzeko.
- > Gobernantzan partaidetza-organoak sortuz sektoreko eragileekin eraikia: diseinua, ezarpena, jarraipena, ebaluazioa, neurriak zehaztea...
- > Helburuei, ekintzei, baliabideei, tresnei, ekarpenei, adierazleei, faseei, neurketari eta ebaluazioari, gizarte-politika multzoarekin konexioei, eragileen kalitateari eta prestakuntzari, berrikuntzari... helduz.
- > Dokumentu gidariak, analisi-dokumentuak, ikerketakoak, inpaktua neurtzekoak... eginez.
- > Ekintzarako ibilbideak, heziketa-agenda, gaitasunetan eta balioetan hezteko ekarpenak proiektatuz. Gizarte-eraldaketarako esku-hartze eran.

1 | PROPOSAMENAK.

BAT. Gizarte-politikan astialdian hezteko euskal estrategia antolatzea.

- › Familiekin lankidetzan lantze aldera, bateratzea, prebentzioa, berdintasunaren sustapena eta aukerak, eta, besteak beste, babes-gabeziako, bazterketako, tratu txarretako eta indarkeriako egoerei heltzea.
- › Eragileen arteko ezaguna eta topaketa, trukea eta lankidetzan sustatzeko ekimenak bultzatuz.
- › Astialdi hezitzaileko proiektuen kalitatea, efikazia, eraginkortasuna eta funtzionalitateak sustatzeko, gizarte-politiken tresna baliagarri gisa, komunitateetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko.
- › Komunikazio-estrategia bat garatzea, astialdi hezitzaileko proiektuei eta ekarpenei buruz sentsibilizatzeko eta informatzeko.
- › Eta astialdian hezteko foru-estrategien aldeko apustua egitea.

1 | PROPOSAMENAK.

BI. Astialdian heziketaren ekarpenak, aukerak eta eragileak zabaltzea Eusko Jaurlaritzaren askotariko planetan eta estrategiatan.

- › Astialdian hezteko proiektuak ekintza, prozesuak eta jarduerak dira eta hauei heltzen diete: garapen jasangarria, euskara eta euskal kultura, ohitura osasungarriak, kirol-praktika, erabilera desegokien eta mendekotasunen prebentzioa, aukerak sortzen dituen bizikidetza, gizarte digitalerako, zientziarako, teknologiarako eta berrikuntzarako, ekintzailtza, talentua, enplegarritasuna, artea, komunitatearen balioak, herritartasun aktiboa eta herritarren parte-hartzea, berdintasuna.
- › Astialdiko heziketa-agendaren aitortza eta inklusioa bermatzean datza, euskal politika publikoetan balioak eta gaitasunak garatzeko.
- › Eta astialdiko heziketaren eta hezkuntza-sistema formalaren, haren agenteen eta agendaren arteko loturak piztea, indarrak batu eta ekarpen handiagoak egingo dituzten ekintza- eta lankidetza-ibilbideak lortzeko aurrerapausoak emateko.
- › Astialdi hezitzailea zenbait kolektiborekin egindako esku-hartzeetan birkokatuz, helduekin batera eta helduentzat, familiekin batera eta familientzat, adinekoekin batera eta adinekoentzat.

1 | PROPOSAMENAK.

HIRU. Astialdian hezteko udal estrategien, programen eta proiektuen ezarpena eragitea.

- › Astialdian hezteko erreferentziazko eremu nagusiak udalerriak eta auzoak (komunitatea) dira, eta han garatzen dira laguntzeko eta babesteko esku-hartzeak eta prozesuak.
- › Komenigarria da aitortza- eta sustapen-ekintzak sortzea, udal esparruan beste programa eta proiektu batzuk sortzen laguntzeko, bai eta jada daudenak babestea ere: jardunaldi eta topaketa politikoak eta teknikoak, diru-laguntzak, prestakuntza, bideratze-dekretuak, ildoak...

1 | PROPOSAMENAK.

LAU. Udalerrietan eta/edo auzoetan heziketa-komunitateen garapena sustatzea.

- › Sarean lan egitea sustatuz eta hezkuntza-esparru formaleko eta ez formaleko erakundeen eta heziketa-eragileen arteko koordinaziorako espazioak ezarriz.
- › Ingurune formaletan, ez-formaletan eta informaletan ikaskuntzen arteko lotura sustatuz, komunitateko programen eta udalerriko erakundeen babesaz, eta familien partaidetza aktiboarekin.
- › Komunitatean edo auzoan heziketa-ekimenak eta -proiektuak bultzatuz.
- › Komunitate hezitzaileetan, erakundeek, eragileek eta esku-hartze hezitzaile formalek, ez-formalek eta informalek antolatuta eta etengabe egiten dute lan elkarrekin, lurralde batean hezkuntza sendotzeko: helburuak, prozesuak, tresnak, plangintza, ebaluazioa, baliabideak...
- › EAeko lurraldeetan komunitate hezitzaileen garapenaren alde egitea eta garapen hori eragitea, astialdiko heziketako eragileen konpromisoa, baterako lidergoa eta partaidetza aktiboa oinarri hartuta.

1 | PROPOSAMENAK.

BOST. Gizarte-ekimeneko proiektuei babesa sendotzea: boluntarioen lana, ezagutza eta berrikuntza.

- > Diru-irabazi asmorik gabeko ekimenek balio erantsi eztaba daezina dute. Herritartasun antolatutik sortu ziren eta boluntarioen lana eta denon ongiari eta gizarte- eta komunitate-garapenari egindako ekarpen solidarioak dituzte oinarri, hirugarren sektore soziala. Premiazkoa da proiektu horien finantzazio-sistema estrategikoki eta modu operatiboan bermatzea.
- > Finantzazio-hitzarmenak ezartzeko, modu egonkorrean eta hainbat urtetarako, sistema koherentea, erraztuko duena eta aukerak eskainiko dituena sortuz.
- > Eta diruz babestea erakundeen funtzionamendu-egitura, erakundeetan jarraipena, kaudimena, jasangarritasuna, kalitatea eta berrikuntza ziurtatzeko.
- > Erakundeen boluntariotza-programak eta laguntza- eta prestakuntza-prozesuak diruz lagunduz.
- > Profesionalen kontratazioen kostuak finantzatuz, erakundeetan koordinaziorako, boluntarioen lana babesteko, berrikuntzarako, kalitate-sistemetarako eta ezagutzaren kudeaketarako.

2 | ASTIALDI SAREA.

- Irabazi-asmorik gabeko erakundeen plataforma gara. Elkartea da figura juridikoa.
- **14 erakunde.**
- **Gehienak, sareak, hainbat erakundek osatuta.**
- Hainbat proiektuekin: esku-hartze soziala, eragileen eraketa, berrikuntza...
- Aktiboak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako auzo eta udalerrietan.
- Gizarte-eragileei, eragile kulturelei, hezkuntza arlokoiei eta administrazio publikoiei konektatuta: Euskadikoak, foralak, autonomikoak.
- Sareen Sarea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sarea. Euskadiko ELKARRIZKETA ZIBILEKO MAHAIAN.
- 2012ko maiatzaren 14an sortu ginen Donostian **Euskal Herrian astialdian hezkuntza sustatzeko eta sendotzeko, eraikitzeko, eraldatzeko eta gizarte-kohesiorako tresna gisa.**
- Euskal Herriaren historiaren parte gara, ekarpen garrantzitsuak, apustuak, konpromisoak, itxaropenak, eta oraingo eta etorkizuneko ibilbideak.

2 | ASTIALDI SAREA.

Gure helburuak:

- **Astialdi Hezitzaileko erakundeak eta arloa Hirugarren Sektore Sozialeko zati gisa kokatzea.**
- Astialdi Hezitzaileko erakundeak eta arloa ordezkatzeko ditugu foroetan eta Euskadiko, estatuko eta Europar Batasuneko Hirugarren Sektore Sozialeko lan-eremuetan.
- Astialdi Hezitzaileko, Astialdi Hezitzaileko Eskoletako eta federatu gabeko elkarte taldeetako sareen lana defendatu eta aldarrikatzea.
- Astialdi Hezitzaileko erakundeak koordinatzeko dauden foroekin elkarlanean eta koordinatutako lana ezartzea helburu hauek lortzeko:
 - Astialdi Hezitzaileko erakundeen garapenerako eta horien jardueretarako legedi-testuingurua hobetu dadin sustatzea.
 - Astialdi Hezitzaileko erakundeen beharretara egokitutako finantza-mekanismoak defendatzea.

2 | ASTIALDI SAREA.

- **Astialdi Hezitzaileko erakundeen bikaintasuna dinamizatzea: kudeaketan, zerbitzuen kalitatean, teknologia berrien erabileran, plangintzan, ikerketan, komunikazioan...**
- **Erakundeek Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiekin eta gainerako administrazio publikoekin duten harremanaren egungo mekanismoak sustatu eta hobetzea, eta Astialdi Hezitzaileari, arlo gisa eragiten dioten mekanismo guztietan solaskide gisa aritzea.**
- Enpresen erantzukizun soziala sustatzea eta merkataritzako mundu pribatuarekin eta ekonomia sozialeko beste erakundeekin lankidetzaren harremanak ezartzea.
- Sindikatuekin, unibertsitateekin, beste erakundeekin, elkargo profesionalekin, komunikabideekin... etengabeko elkarreragina sortzea.
- Iritzia sortu eta politika publikoetan eragitea, proposamenak eta salaketak eginez.

3 | HEZKUNTZA ASTIALDIAN: PERTSONEN GARAPENARI, KOMUNITATEEI ETA EUSKADIRI EGINDAKO EKARPENAK.

1. **Astialdi hezitzailea bertako herrietan, hirietan eta auzoetan Bizkaiaren, Gipuzkoaren eta Arabaren historiaren zatia da.** Proiektuek eta antolakuntzek pertsonen eta komunitateen garapenari laguntzen diote. Herrialdeko gizarte-politiketan eta politika hezitzaileetan baliabide erabilgarriak dira, ezinbestekoak.

2 Astialdi hezitzailea **hainbat forma dituzten proiektu askok** osatzen dute: eragile hezitzaileak prestatzeko eskolen ekarpenak dira, taldeak eta prozesuak dira, urte osoan zehar egindako jarduerekin, eta ez oporraldian bakarrik, eskolari, auzoetako elkarteei eta bertako eragileei konektatuta garapen komunitarioan

Hauk ere badira: ludotekak, gazteguneak, jardueren zentroak, esperientzia hezitzaileak, udalekuak, eskolaz kanpoko jarduerak, hiri-eremuak, artean, berrikuntzan, zientzian, teknologian, kiroltan, trukaketetan... espezializatutako proiektuak dira. **Jarduera hezitzaileko eremuak. Euskal administrazio publikoek aitortuta eta finantzatuta (Udalak, Foru Aldundiak, Gobernuak)**

3. Trantsiziotik, eta baita diktadura bete-betean ere, proiektuek **pertsonak babesten dituzte hazte-prozesuan**, proposamen gizatiar eta eraldatzailearekin, aukera-berdintasuna, justizia soziala, solidaritatea, parte-hartzea, balioetan hezte eta konpetentziak dira oinarritzko elementuak

3 | HEZKUNTZA ASTIALDIAN: PERTSONEN GARAPENARI, KOMUNITATEEI ETA EUSKADIRI EGINDAKO EKARPENAK.

4. Astialdiko hezkuntza, **etengabe eguneratzen ari dena, tresna pedagogiko berritzailea da, gizarte-ekimeneko erakundeetan, borondatezko eragile hezitzaileekin eta** hezkuntza-prozesu baliotsuak lantzeko **behar diren kompetentzietan trebatutako borondatezkoak eta profesionalak diren hezkuntza-eragileekin.**

5. Astialdi hezitzaileko proiektuak **politika sozialen parte aktiboa dira** oro har, eta bereziki, hauekin lotutakoak: laguntza eta "inbertsioa" familietan, elkarlana familiekin, hauetatik abiatuta: hezkuntza-zeregina, kontziliazioa eta atsedena (astialditik), prebentzioa eta babesgabetze-egoerei aurre egitea, bazterkeria, tratu txarra, emakumeen kontrako indarkeria, bullying-a..., berdintasuna eta bereizkeriarik eza sustatzea, kulturartekotasuna, hirugarren sektore soziala, boluntarioria eta solidaritatea sustatzea.

6. Astialdi hezitzaileko proiektuak **ekintzak, prozesuak eta jarduera hezitzaileak dira**: garapen iraunkorrerako, euskara eta euskal kultura, ohitura osasungarriak, kirol-praktika, erabilera desegokien eta adikzioen prebentzioa, aukerak sortzen dituen elkarbizitza, gizarte digitalerako, teknologiarako, berrikuntzarako, ekintzailetzarako, talenturako, enplegarritasunerako, balio komunitarioen arterako, herritar aktiboentzako eta herritarrek parte-hartzeko.

3 | HEZKUNTZA ASTIALDIAN: PERTSONEN GARAPENARI, KOMUNITATEEI ETA EUSKADIRI EGINDAKO EKARPENAK.

7. Astialdi hezitzailean, garrantzitsuena da **pertsonekin eta pertsonentzako lantzen duela aukera anitzen garapena**: adierazpena eta sormen kulturalaren aukera, jolaserako aukera, herritarren kulturarekin eta berehalako komunitate sozialarekin lotzeko aukera, beste pertsonekin doako elkarbizitza eta elkarbizitza aberatsa izateko aukera, norbere buruaren ezagutza sakona egiteko aukera, norbere mugei eta kontraesanei buruzkoa, eta era berean, norbere gaitasunekin eta potentzialtasunekin lotutakoa, gizarteak proposatutakoaren bizitza-estilo desberdina sortzeko aukera, eta bereziki, astialdiaren (edo aske izandako denbora) bidez, norberaren aurrean, edo gainerako pertsonen edo gauzen aurrean norberari buruzko azterketa kritikoa egiteko aukera, konpromiso sozial, politiko eta gizatiarrarekin bat egiteko aukera.

8. Euskadiko astialdi hezitzaileak **komunitate hezitzaileak eraikitzeke apustua egiten du**. Bertan, lurralde bateko (auzoa, herria...) eragileen aniztasunak, eskolak, Udaleko zerbitzuek, elkarteek... etengabe eta modu egituratuan laguntzen dute partekatutako proiektu komunitario hezitzailean.

3 | HEZKUNTZA ASTIALDIAN: PERTSONEN GARAPENARI, KOMUNITATEEI ETA EUSKADIRI EGINDAKO EKARPENAK.

9. Astialdi hezitzailea **etorkizuneko eragile sozialetarako ikaskuntza- eta esperientzia-eremuak dira**. Prozesuetan eta ibilbideetan, pertsonak parte hartzen dute eta konpetentziak eta balioak erdiesten dituzte. Proiektuak, leku askotatik, eragile gisa behin baino gehiagotan eraikuntzari eta gizarte-eraldaketari lotuta jarraituko duten entrenatzeko eta pertsonak gaitzeko eremuak izan ziren, dira eta izango dira.

10. Euskadiko astialdi hezitzaileak, ASTIALDI SAREA sarearen bidez, ekarpen sozialetan eta hezitzaileetan sakontzeko eta hedatzeko jarduten du. ASTIALDI SAREA osatzen duten 13 erakundek partekatutako agendak hauek sustatzen ditu: berrikuntza, proiektuak eta ekimenak, konexioak, ibilbideak administrazio publikoekin, unibertsitateekin, eragileekin eta gizartearekin. **ASTIALDI SAREA SAREEN SAREAKo kide da, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko eta Euskadiko ELKARRIZKETA ZIBILEKO MAHAIKO erakundeen sarea.**

